Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Begoña Ostolaza Linazasoro

Zumaia, Gipuzkoa (1935)



Aurkibidea

Biografia



Askuntze (edo Ondargain) etxean jaioa, paol bidean. Aita Aizarnazabalgoa eta ama Beduakoa, 8 anai-arreba izan ziren. 11 urte inguru zituela, Beheko plazako Erkibe etxera joan ziren bizitzera. Dantzarako zaletasun handia izan zuen gaztetan. "Amona Paka" ezaguna amaginarreba izan zuen. Senarra, Joakin, arrantzalea izan zen, Terranovan 22 urtez ibilia. Begoñaren zeregina etxea eraman eta seme-alabak haztea izan zen orduan. Geroago denda bat ere eduki zuten. Ikastolaren sorreran parte hartu zuen. Bertsolaritza, zinea eta bidaiatzea ditu afizio Begoñak.

Zintak

ZUM-114

- **Proiektua**: Zumaiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data**: 2021-10-27
- **Iraupena**: 90 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Askuntzeneko etxetik Erkibera

- **Erref**: ZUM-114/001
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Askuntze (edo Ondargain) etxean jaio ziren 8 senideak. Bi pisuko eraikina zen eta beraiek behean bizi ziren. Hezetasun handia zegoen eta amaren osasunagatik Beheko Plazako Erkibe etxera aldatu ziren beranduago. Begoñak 11 urte inguru izango zituen orduan.

2. Aitak Guridiren diskoak ipintzen zizkien

- **Erref**: ZUM-114/002
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:01:53. **Bukatu**: 00:05:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Askuntze (edo Ondargain) etxean bizi zen Begoñaren familia. Goiko pisuan etxeko nagusiak bizi ziren. Sarritan bidaiatzen zuten baina Begoñak orain dela gutxi jakin du zergatik. Begoñaren aita arotza zen eta nagusien etxean zerbait konpontzera goiko pisura igo behar zuenean, anai-arreba zaharrenak berarekin eramaten zituen. Liburutegi eder bat zegoen eta bertan gramofono bat. Aitak Guridiren diskoak jartzen zizkien.

3. Erkibe etxean bizitzen

- **Erref**: ZUM-114/003
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:05:24. **Bukatu**: 00:06:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Askuntze (edo Ondargain) etxean hezetasun handia zegoen eta amaren osasunagatik Beheko Plazako Erkibe etxera aldatu ziren. Bi familia bizi ziren han: beheko pisuan Luis Unanue eta Mari Kruz Ispizua eta goikoan Ostolazatarrak. Begoñaren ahizpa zaharrena, Mari Tere, ezkondu zenean teilatupean jarri zen bizitzen.

4. Erkibe etxea, herriaren erdigunean

- **Erref**: ZUM-114/004
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:09:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Askuntze (edo Ondargain) etxean bizi zirela ez ziren kale aldera asko joaten. Lorategian dantzak entseatzen ibiltzen ziren. Baina Beheko Plazako etxera aldatu zirenean, herriaren erdigunean egonik, festak gehiago gozatzen zituzten. Oso dantzariak izan dira. Erkibe etxean botoi fabrika bat ere bazen. Etxearen kanpoaldea nolakoa zen azaltzen du.

5. Gaztetako jaiak eta dantzak

- **Erref**: ZUM-114/005

- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:09:09. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Beheko plazako kioskoan dantzan ibiltzen ziren. Igandero jotzen zuen bandak; neguan Goiko plazan eta hotzak pasatzen zirenean Beheko plazan. Txistulariak ere izaten ziren, banda amaitutakoan. Taberna batzuetan gramofonoak ipintzen zituzten. Elgoibarko orkestina ere etortzen zen. Ordaindu egin behar izaten zen. 5 lagun ibiltzen ziren elkarrekin.

6. Mojen eskolan

- **Erref**: ZUM-114/007
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:11:11. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Mojen eskolan ibili zen Begoña. Goiko plazatik sartzen ziren neskak eta mutilak berriz Erriberatik. Uniformeak ordainpeko eta ez-ordainpeko ikasleak desberdintzen zituen. Barnetegia ere bazegoen. Goiko plazan 'Tintuxenekuak' deitzen zieten senar-emazte batzuk denda zeukaten eta bertan haur txikiei eskolak ematen zizkieten. Mojek famili oneko ikasleak bereziago tratatzen zituzten. Batzuetan Begoña zigortu izan zuten.

7. Aita, elizkoia eta ikasketaduna

- **Erref**: ZUM-114/008
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:14:41. **Bukatu**: 00:18:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aita oso zorrotza eta elizkoia zen. Mezetara joan eta arrosarioa errezatu behar izaten zuten. Aita goiz jaikitzen zen eta gauean jota egoten zen. Goizeko 6:30etako mezara joaten zen egunero, eta aurretik tailerreko kontuak egiten omen zituen. Deustuko unibertsitatean ikasi zuen. 'Garate anaia' zegoen atezain gisa eta tratu ona zeukan aitarekin.

8. Osaba organista eta osaba pilotaria

- **Erref**: ZUM-114/009
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:18:49. **Bukatu**: 00:22:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Begoñaren aitona oso goiz hil zen. Seme zaharrena, Juan (Begoñaren osaba) musikaria zen eta ez zuen aitaren lanekin jarraitu nahi izan. Ameriketara alde egin zuen eta ez zuten berri gehiagorik izan. Familiarentzat lotsagarria izango zela uste du Begoñak. Anaia gazteena, Julian, pilotaria izan zen, erremontean ibiltzen zen. Behin buruan pilotakada bat jaso eta ondoezik egon zen denbora luzez. Emakume kataluniar batekin ezkondu zen.

9. Ama, emakume maitagarria

- **Erref**: ZUM-114/011
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:23:11. **Bukatu**: 00:24:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama Beduan jaioa zen, oso emakume ona. Gauetan, aita ohera joandakoan, amari kontuak esaten geratzen ziren.

10. Senide asko izatearen abantailak

- **Erref**: ZUM-114/013
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:25:32. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Senide asko izatearen abantailak: norbere burua defendatzen ikastea, eskuzabaltasuna... Jatorduetako anekdotak.

11. Bi anaia apaiz

- **Erref**: ZUM-114/014
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:27:24. **Bukatu**: 00:30:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bi anaia apaiz joan ziren. Karlosek 11 urte bakarrik zituen Saturraranera joan zenean. Joxe oso abila zen marrazketarako eta delineatzaile ikasketak egingo zituela uste zuten, baina bat-batean seminariora joan nahi zuela esan zuen. Etxera bisitan etortzen zirenean egun handia izaten zen. Ama eta pare bat arreba ere joaten zitzaizkien anaiei bisitan.

12. Osabarekin dantza egiteagatik kongregaziotik bota

- **Erref**: ZUM-114/015
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:30:49. **Bukatu**: 00:34:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
'Hijas de María' kongregaziotik bota zuten osabarekin dantza egiteagatik. Debekatuta zegoen mutilekin dantza egitea. Dotrinatik irteerak egiten zituzten. Mutilak luistarretan ibiltzen ziren.

13. Erromeriak eta irteerak

- **Erref**: ZUM-114/016
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:34:08. **Bukatu**: 00:37:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Zumaiako mutilak askotan Zarautzera joaten ziren erromeriara; beraiek San Lorente edo Ibañarrietara gehienez. Sakonetako irteera bateko anekdota. Getariako festetara ere joaten ziren.

14. Joakin senarra, itsas gizona

- **Erref**: ZUM-114/017
- **Iraupena**: 0:04:57. **Hasi**: 00:37:07. **Bukatu**: 00:42:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Familia eta harremanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
<p>Senarra, Joakin, itsas gizona zen. Yereguirenean egon zen itsasontzien mekanika ikasten eta 13-14 urterekin "pintxe" gisa ibili zen lanean Joxe Aristi

maisuarekin. Igeri egiten oso abila zen. Uretara eroritako urrezko erloju baten anekdota. Bere lagunik handiena 'Emeterio' zen (Valentin Manterolak pintatutako erretratua erakusten du).</p>

15. Joakin 22 urtez Terranovan

- **Erref**: ZUM-114/018
- **Iraupena**: 0:07:14. **Hasi**: 00:42:04. **Bukatu**: 00:49:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Joakin senarrak mekaniko titulua atera zuen eta ondoren Terranovara joan zen ezkondu aurretik. 22 urtez ibili zen han bakailaotan. Gran Solera ere joan ohi zen, Ondarroako barkuetan. Hiru hilabetetik behin, astebetez, etortzen ziren Euskal Herrira. Abenduan denbora gehiago geratzen ziren, konponketak egiteko. Etxea eta umeak zaintzea Begoñaren lana izaten zen. Familiaren laguntza handia izan zuen. Joakin Zumaiara etortzen zenean lagunekin eta familiarekin zer egiten zuen.

16. Errioarekin harreman estua

- **Erref**: ZUM-114/019
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:49:18. **Bukatu**: 00:53:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Itsasoa

Laburpena:
Ohitura handia izan dute errioan batelarekin ibiltzeko, baita igerian egiteko ere. Kirol portua ireki zutenean ontzi bateko gidariarekin edukitako eztabaida. Gaur egun trafiko asko dago errioan, kontuz ibili behar da. Marea jaitsitakoan hondartzatxoa sortzen zen eta hor egoten ziren.

17. "Amona Paka", Begoñaren amaginarreba

- **Erref**: ZUM-114/020
- **Iraupena**: 0:06:17. **Hasi**: 00:53:40. **Bukatu**: 00:59:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Frantziska Gomez, "Pakita Porraja" ezaguna, Begoñaren amaginarreba zen. Haurtzaro zaila izan zuen Pakak eta gainera 33 urterekin alargun geratu zen. Gaztetxotatik arrantzari lotutako lanak egiten lagundu behar izan zuen etxean. Izaera handiko emakumea zen. 99 urterekin hil zen. Hainbat anekdota barregarri kontatzen ditu. "Fenomenoa zen".

18. Ikastolaren hasiera

- **Erref**: ZUM-114/021
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:59:57. **Bukatu**: 01:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Seme eta alaba zaharrenak ez ziren ikastolara joan, oraindik ez baitzegoen martxan. Hasiera batean pozik zeuden ikastola ipini zenean, baina gero zurrumurruak zabaltzen hasi ziren herrian eta azkenean zatiketa egon zen. Urte batzuk zailak izan ziren ikastolarentzat eta gurasoek lagundu beharra izan zuten. Larraulen udalekuak ipini zituzten eta han ere gurasoek lan egin behar izaten zuten.

19. Begoñaren kultur zaletasunak

- **Erref**: ZUM-114/022
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 01:04:05. **Bukatu**: 01:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
'Ez dok amairu' ikustera joaten ziren. Betidanik izan da bertsozalea. Lujanbio da bere gogokoena. Dantza ere asko atsegin du; Lucia Lacarra ikustera joatekoa da Bilbora. Zine zalea ere bada. Txikitan Amaia antzokira eta Maitena zinemara joan ohi ziren.

20. Bidaiatzea gustuko

- **Erref**: ZUM-114/023
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 01:07:20. **Bukatu**: 01:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bidaiatzea oso gogoko du. Familia eta lagunekin joan izan da. Nondik nora ibili izan den aipatzen du. Suitzako baserriek arreta deitu zioten. Norvegiako fiordoak txikian Zumaian ere badaude. Tunezeko janari pikantea.

21. Jubilatuen elkartearekin bidaiatzen

- **Erref**: ZUM-114/024
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 01:13:10. **Bukatu**: 01:16:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bidaiatzea oso gogoko du. Jubilatuen elkartearekin bidaiatu izan du, urtean bitan. Espainia guztian egon da. Ibizatik Formenterara, itsaso txarrarekin larri.

22. 50 urterekin denda ipini zuen

- **Erref**: ZUM-114/025
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 01:16:34. **Bukatu**: 01:19:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Seme-alaba zaharrenei lagatzeko asmotan, 50 urte zituela denda zabaldu zuen. Mari Bego alabak hartu zuen azkenean. Jendearekin hartu-emana gustatzen zaio.

23. Txikitan Itzurun hondartzara

- **Erref**: ZUM-114/028
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:22:30. **Bukatu**: 01:24:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Txikitan Itzurun hondartzara joaten ziren amarekin. Marmokek pikatu ziotenekoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-01

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com